

Barekurkuilu bat zapaldu dut

**Maidor IANTZI
GOIENETXE**

Goiti begira noa oinez, ilun-senti eder batez gozatzen, eta krask!, barekurkuilu bat zapaldu dut nahi gabe. Iruditzen zait aunitz erraten duela gertaera horrek. Alde batetik, gora begiratzeaz, behingoz ariketa hori egiten ari bainaiz, miopea izanik, aurki munduaren erdia izanen den bezala, ez dugulako urrun so egiten. Bertzetik, barraskiloa hiltzeaz. Goiti bezala beheiti begiratzearen garrantziaz. Nire despiste bat, bere amaiera. Krask! horrek barnean eragin didana.

Oskolak badu bere funtzioa, babesa da. Baina badu angustia ere. Murritzute egiten gaitu, azal horren giblean kukututa gaudelarik ezin ditugulako gure gaitasunak eta ahalmenak zabaldu.

Oskola irekitzeak, edo behintzat zartatzeak, gauza onak eta txarrak erakustea ekartzen du. Gorputza hortik ateratzen badugu, zaurgarri izan gaitezke. Barraskiloaren adarrak ikusi nahi baditugu, lekua eta denbora eman behar dizkiogu. Sobera agudo hurbiltzen bagara, edo ukitzen badugu, segituan sartuko da bere etxean.

Hondartzan maskorrak biltzea jolas ederra da. Polit, bitxi, handi, txiki, kolore biziko edo ia ikusezin, maskaren gisa-koak dira, izan gaitezkeen pertsonaiak. Aukeratutakoak poltsan gorde, eta etxerakoan, toallak astindu ondoren, bainujantziarekin batera pasatuko ditugu uretan bainugelako konketan, hondar ale guziak zulotik behera joan arte.

Lehortu, eta txukun-txukun jarriko ditugu mahaian: lerroan, biribilean, bata bertzearen gainean, nahi dugun forman. Agian, margotu egingen ditugu, zulu eta lepoko edo eskumuturreko bezala jarri.

Nire galdera da ea zer ezkututzen den maskararen atzean, eta ea nolakoa den barraskiloaren existentzia, gorputz osoa agertzen ez badu. Baimena du izateko? Gorputz osoa ateratzeko? Sartzea datorrenari aurre ez egiteko modu bat da? Zer ziurtasun du irekitzeko?

Irekitzeak erran nahi du zaurgarri izan gaitezkeela, gure burua zaintzen dakigulako. Maskorra uretatik pasatu arren, beti geldituko da gatz, zirrikitu guztietatik sartzen delako. •

Gorria da kolorea

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Droga gogorra dira sanferminak. Konturatzerako, jaiak harrapatu eta eraman egin zaitu milaka zapi gorri dantzariaren erreka harrotuan hostotxoa bezala, gora eta behera, batzuekin eta besteekin, edonora, edonorekin... alai eta berritsu... oooso berritsu.

Gorria da kolorea, gorriak kaleetako jende uholdeak, gorriak German Rodriguez eta Joseba Barandiaranen omeneko krabelinak, gorriak jazarriak izaten ari diren emakume ahaldunduen salaketa eta deiadar ezpainak.

Gorriak eta goriak dira besarkada, muxu eta irribarre bakoitzean elkar trukaturako emozioak.

Ez dut inoiz inon sanferminetan beste besarkada eta muxu eman-jaso, uztailaren 6an bereziki, niretzat egunik gorrienean, ez soilik Txupinazoaren eguna delako, baizik eta lehen eguna denez, iruindar eta nafar bakoitzari urte osoan pilatutako antsietate guztia sabelaren barru-barrutik lehertzen zaiolako, emozio menderaezinak gorputz-azal, gihar eta barruak malko gozoekin blaitzeraino. Eta hori, curiosoa gertatzen da, zezenketarik gabeko egun bakarra izanik.

Ez ditut gogoko sanfermin zuriak, arropa oraindik ere garbiekin etxertzen direnenak; ezta beltzak ere,

jaiak hasterako burutik behera ardo putzuetan harrokeriaz galtzen direnenak; ezta "giri" souvenir sanferminak ere. Nahiago dut tonaka emozio konpartitzen diren edozein kale estu zikinetan galdu berriketan, dantzan eta kantuan.

"Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko" egia bada, betiko biziko da gure Iruñea zaharra, egun bakarrean eta hainbeste alditan ez baititut beste inon entzun, emozioz urratutako dozenaka eztarritatik, "Xalbadorren heriotza" eta "Txikia".

Iruñeak emoziotik kantatu eta dantzatzen du. Gora sanfermin gorriak!! •